



*San Juan
poligonoan
Babes Ofizialeko
Etxebizitzak*

/3. orrialdea

*Paper eta
kartoirako
edukiontziak
Muskizen*

/4. orrialdea

*Semaforo
berriak
Meatzari
plazaren parean*

/5. orrialdea

*Mello Mendi
Taldearen XXV.
Urteurrena*

/6. orrialdea

Editoriala

Konpromisoak eta itxaropenak betez

Gertakariak erabakiak hartzen dituenaren ardura erakusten dute. Azken urtean, gobernu talde hau Muskizentzat funtsezkoak diren proiektuetan ari da lanean, hartutako konpromisoak betetzeko asmoz, betiere. Kontrakoak, ezinezko promesek alegia, etsipena sorrarazten du.

Hitz egin dezagun gertakariez. Hiri Antolamendurako Plan Nagusia, auzokako partaidetza-foroen deialdiarekin, funtsezkoa da Muskizen etorkizuneko garapena erabakitzeke. Beste proiektu batzuk: N-634 errepideko trafikoa baretzea, semaforizazioa hobetzea, hiriko bidegorria, N-634 errepideko saihesbidea, kiroldegia eta hondartzaren arteko bide naturala, erreka pasealekua El Pobal eta San Juanen artean, kiroldegia handitzea, sarbide mekanikoak Sobalbadunen, Cruceroko jolasgunea estaltzea, zaraten gaineko ordenantza, airearen kalitatearen kontrola, ekonomia dinamizatzea eta enplegua sustatzea, trebakuntzarako bekak, antsietatea kontrolatzeko emakumeentzako programa eta abar. Gainera, Muskiz hiri "paisaia" hobetzeko lanean ari da; horretarako, lorategi-guneak berriitu ditu, zaborrontzi, banku, baranda eta jardinera berriak jarri ditu, erreken ibilgua garbitu du, jolasgune berriak sortu ditu, bideak konpondu ditu, pasabide goratuak jarri ditu ibilgailuen abiadura murrizteko eta abar. Ekimen horiek agerian uzten dute Udal honek bere hitza betetzen duela.

Gobernu talde heldu batek ez du itxaropen faltsurik sortu behar. Ildo horretan, oraingo taldearen egonkortasunari esker, Muskiz benetako gertakariaren indarrez ari da aurrera egiten. Gertakariak dira, kargu publikoen eta funtzionarioen lankidetzarekin, egunero-egunero aurrera doazen proiektuak. Erabakitzen dugunon erantzukizunak posibilitas motik jardutera garamatza, hau da, negoziatioaren eta konpromisoaren alde eginez, eta daukagunarekin lan eginez. Muskizek aurrera gin dezan, Udalak aukera bakarra dauka: egin, egin eta egin. Aldiz, norgehiagokak trabara eta paralisira garamatza ezinbestean.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea

ESKABIDEAK		ZENBATEKOA EUROAK	GUZTIRA
Jasotako eskabideak	165		
Onartutako eskabideak	151		
Ukatutako eskabideak	14		
Seme-alaba leentzat eskatu duten familiak	82	100,00	8.200,00
Seme-alaba 2rentzat eskatu duten familiak	28	200,00	5.600,00
3 seme-alabarentzat eskatu duten familiak	3	280,00	840,00
4 seme-alabarentzat eskatu duten familiak	1	340,00	340,00
Beka jaso duten umeak, guztira	151		14.980,00

151 bekadunek izango dute eskolako materialerako laguntza

Muskizko Udalak 15.000 euro banatu ditu udalerrian errol-datuta dauden eta aurtengo ikasturtean EAEko ikastetxe publiko eta pribatuetan derrigorrezko Lehen eta Bigarren hezkuntzan ari diren 151 neska-mutikoren artean. Deialdi honetan banatutako zenbateko ekonomikoa 2011. urtekoa baino %25 handiagoa da.

Modu horretan, 2012ko deialdian jasotako eskaera kopurua aurreko edizioetako bikoitza izan da ia; hala ere, 14 eskaerari ezezkoa eman zaie, korporazioak onartu-

tako diru-laguntza aginduan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez zutelako.

Laguntza-plan honekin, Udalak erantzuna ematen die liburuak eta eskolako materiala eskuratzeko beharrezkoa den zenbateko ekonomikoa handiak bereziki kaltetutako familien eskaerei; izan ere, gastu hori ikasturte bakoitzaren hasieran izaten da.

Diru-laguntzaren azken zenbatekoa, 15.000 euro ingurukoa, modu bidezkoan banatu da eskabidea aurkeztu eta baldintza guztiak betetzen zituzten familien artean.

Jarduerak El Pobal burdinolan

El Pobal burdinolak berriro ireki dituzte ateak, EAE osoko ikastetxeetako ikasleek bertako instalazioetan egiten diren jarduerak ezagutu ditzaten; izan ere, El Pobal burdinaren museo bizia da. Txikienek bost zentzumenak erabiliko dituzte eta pertzepzio-gaitasuna estimulatuko dute, burdinola bisitatzen dutenean. Urak, suak, makinaren zaratak... guztiak lagunduko die jolas horretan.

Lehen Hezkuntzako ikasleek ogia eta taloa egiteko aukera izango dute, eta, bisitaren amaieran, produktu horiek jan ahal izango dituzte. Bestetik, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko, DBHko eta Baxilergoko ikasleek forjaketa-praktika

errazak egingo dituzte suteagian, errementariaren laguntzarekin. Era berean, beste hainbat jardueraren artean, ibilbidea egin daiteke El Pobal, La Olla eta Valdivián burdinoletatik.

Bisita guztiak gidatuak izango dira, eta erakustaldia eskainiko da errotan eta burdinolan. Gainera, bisitak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez egin daitezke.



Babes Ofizialeko Etxebizitza berriak San Juan poligonoan

Garajeak ere eraikiko dira gaur egun inguru horretan bizi direnentzat

Udalak hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin, Babes Ofizialeko 90 Etxebizitza eraikitzeko San Juan poligonoko Acacias kaleko dorreen ondoan libre dagoen partzelan. Gainera, garaje-plaza nahikoak sortuko dira, Babes Ofizialeko esleipenduz gain, auzoko bizilagun guztiek izan dezaten aparkalekuak

Akordio honen berezitasuna da Muskizko bizilagunek erabateko lehentasuna izango dutela etxebizitza hauek eskuratzeko, eta, horrela, esleipena egin ostean etxebizitzaren bat eman gabe geratuko balitz, inguruetako udalerrietako bizilagunei esleitu ahal izango litzaieke.

Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenean, Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta tramitatzeko beharra ezartzen da, eraiki beharreko etxebizitza kopurua handitu ahal izateko aurreko sustapenetan erabili ez den lursaila erabiliz. Beraz, etxebizitza bakoitzaren batez besteko azalera 90 metro koadro ingurukoa izango da, eta, hortaz, etxebizitza eta garaje duinak izango dira.



“Etxebizitzen batez besteko azalera 90 90 m² ingurukoa izango da

Era berean, eta Muskizko Udalak eskatuta, erakunde publiko biek Babes Ofizialeko Etxebizitzen sustapenari dagozkionak baino garaje-plaza gehiago eraikitzea adostu dute. Neurri honekin, inguruetako eraikinetako bizilagunek garajeak eskuratu ahal izango dituzte. Ekimen honen bitartez, San Juan poligonoko gaur egungo aparkaleku kopurua handitzeko beharrianari erantzun nahi zaio.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak lursailaren azterketa geoteknikoa egiteko konpromisoa hartu du, San Juan poligonoan proiektatuta dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzei dagozkien garaje-plazak baino gehiago eraikitzeko aukera teknikoa zehazteko asmoz.



Langabeak kontratatzekeo sustapena

Udalak herriko 115 langaberen kontratazioa ahalbidetu du, bai FORLANek sustatutako Enplegu Planaren bitartez zein Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. Hori, Borja Liaño Muskizko alkatearen arabera, “ekarpen txiki bat baino ez da, herriko bizilagun batzuek bizi duten egoera larria arindu ahal izateko”. Ekintza horiez gain, duela gutxi aurrekontu aldaketa egin zen, beste 200.000 euro bideratzeko langabeen kontratazio berrietara.

Era berean, Udalak trebakuntzarako zenbait

ikastaro antolatu ditu, batez ere langabezia dauden bizilagunei zuzenduta. Gainera, enpresa-proiektuak sortu eta abiarazteko aholkularitza-programak egin dira, bai eta Petronorren lan egiteko segurtasun arloko trebakuntza-programak, informatikarako hastapen-programak, arlo sozialeko enpresen kudeaketa administratiborako programak eta hondartzainak trebatzeko programak ere. Korporazioak ildo berean segituko du lanean, udalerriko pertsona langabeen kopuruak kezkgarria izaten jarraitzen du eta.



Irakaskuntza-erabilerarako lursail pribatua eskuratu da

Muskizko Udalak Cantarrana Herri Ikastetxearen eta Bigarren Hezkuntzako Institutuaren ondoko lursail pribatua eskuratu du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza ordezkaritzak planteatutako irakaskuntza-erabilerarako lursail-eskaerari aurre egiteko. Erakunde horren arabera, ezinbestekoa da Institutuaren instalazioak handitzea, herriko eta inguruetakoa udalerrietako leku-eskariari erantzun ahal izateko.

Eraikitzeak aukera ematen duen 1.800 m² libreko partzela da. Berraren barruan, 414 m²-ko beste partzela bat dago, titulartasun pribatukoa, eta, finka horren barruan, erortzear dagoen etxebizitza zahar bat eta zenbait fruta-arbola daude. Jabetza hau besterentzeak 90.000 euro inguruko kostua izango du Muskizko Udalarentzat.



Tentsio ertaineko linea lurperatzea

Iberdrola elektrizitate-enpresarekin sinatutako hitzarmen bati esker, aparkalekuko komun publikoen eta Pobeñako paduren artean dauden 100 bat metro linealak zeharkatzen dituen tentsio ertaineko linea lurperatzeko lanak hasi dira. Betearazpen epea lau hilabetetik beherakoa izango dela uste da.



Lanak El Pobaleko garbitokian

El Pobaleko garbitokiko ontzia konpontzeko lanak Muskizko Ondare Historikoa berreskuratzeko ekintzen barruan daude sartuta. Honako hau da, udalerriko garbitokiak berreskuratzeko asmoz, legegintzaldi honetan onartu den bigarren ekimena.



Papererako edukiontzi berriak Muskizen

Irailean, paper eta kartoiraiko lehengo edukiontziak kendu, eta, beraien orde, herritarrentzat eta berauek husteaz eta mantentzeaz arduratzen den enpresarentzat modernoagoak eta erabilgarriagoak diren beste batzuk jarri dira. Edukiontzi berri hauek urdinak izaten jarraitzen dute, eta, aurrekoek bezala, Muskizko Udalaren logotipoa dute, baina, lehengoak ez bezala, hauek plastikozkoak dira eta alboko karga dute.

FCCK, papera eta kartoia batzeaz arduratzen den enpresak, edukiontziak gutxienez astean bitan husteko konpromisoa hartu du, eta, modu horretan, botatako hondakinen bolumenak ez ditu edukieraren bi herenak gaitutuko. Era berean, edukiontziak sei hilerik behin garbituko dira goitik behera.



Villanueva auzorako saneamendua

Dagoeneko hasi da Villanueva auzoan saneamendua jartzeko proiektuaren lehenengo fasea. Lan hauek hiru hilabetean amaituko dira, eta, beraiei esker, inguruetakoa eraikin gehienetarako hodi-terriak instalatuko dira. Lanak amaitzerakoan, auzoko dozena erdi eraikin eta etxebizitza udalerriko sare nagusiarekin konektatuta geratuko dira.

Bi semaforo berri N-634 errepidean, Meatzari plazaren parean

Neurri honekin, ibilgailuen abiadura murriztu nahi da eta pasabide berriak sortu nahi dira inguruan dabiltzan oinezkoentzat



uhin berdeko semaforizazio sistema baten bitartez.

Errepide honetatik dabiltzan ibilgailuak abiadura murriztera behartzea da asmoa, eta, gainera, pasabide berriak jarriko dira, etxebizitza-gune hauetako bizilagunak errazago joan daitezzen inguruetako aisialdi-guneetara, adibidez, Meatzari plazara, Kiroldegira, futbol zelaietara, Kultur Etxera edo Osasun Zentrora, besteak beste.

Era berean, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko asmoz, herriko zenbait lekutan espaloiei jarraipena emateko asmoa dago; esate baterako, Soperatarantz doan errepidean eta N-634 errepidearen zenbait tartetan.

Muskizko Udala lanean ari da, udalerrria leku atsegina izan dadin oinezkoentzat. Horretarako, irisgarritasuna hobetzeko zenbait ekintza egiten ari dira; besteak beste, espaloiei jarraipen handiagoa ematea eta beharrezkoak egitea halakorik ez dagoen lekuetan, oinezkoen pasabideen altuera berean utziz.

Muskizko Udalak N-634 errepidean semaforo berri bi jaritzeko kontratazio-espeditentza abiarazi du, Meatzari plazaren parean;

izan ere, aipatutako errepidea udalerrria zeharkatzen duen arteria nagusia da. Neurri honekin, ibilgailuen abiadura murriztu nahi da El Crucero eta Cendeja kaleen artean,



Autonomia kaleko patioak birgaitzeko lanak lizitatuta daude jada

Autonomia kaleko patioak birgaitzeko lanen lizitazio-orria onartu da, 550.000 euroko zenbatekoan. Lanek lau hilabete inguru iraungo dute, eta, gainera, hobekuntzak egingo dira hornidura eta saneamendu sareetan, argiztapenerako kanalizazioak jarriko dira, eta gas naturalaren hornidura egingo da.



Auzoetako trafikoa eta irisgarritasuna hobetzea

Udan, Sobalbadun, Las Acacias, Fuente Vieja, Marcelo Gangoiti eta Autonomia auzoetako zenbait lekutako galtzadak eta espaloiak konpontzeko lanak egin dira, ibilgailuen abiadura murrizteko eta oinezkoen joan-etorriak ahalbidezteko asmoz. Fuente Vieja auzoan, adibidez, pasabide goratua eta hormigoizko badena jarri dira. Gainera, errepideko 50 bat metro linealeko asfaltoa berritu da, zuloak desagerrarazteko.

EL KAR RIZ KETA

Mello Mendi Taldearen XXV. Urteurrena

Mello Mendi Taldea 1987an sortu zen, mendizaletasunaren inguruko esperientzia eta gogoaz zuten Muskizko bizilagun batzuen itzaropenei erantzuteko; izan ere, herritar horiek txangozaleen talde bat sortu nahi zuten. Alabaina, handik denbora gutxira, jatorrizko ideia horrek proiektu handiago bati utzi zion lekua: beste elkarte batzuekin etengabeko harremanetan egongo zen eta gazteenei mendiaren harra sartzeko lan aktiboan arituko zen taldea sortzea, alegia. Ondo zekiten harrobia lantzea oso garrantzitsua zela.

G/ Zenbat lagunek osatzen dute taldea?
E/ Gaur egun, 830 kide gaude. Baina gure berezitasunik handiena da, batez ere, 75 urtetik gorako pertsona nagusiz osatutako taldea garela, gure bazkideen %55ek baino gehiagok adin hori gainditzen dute eta. Eta, harrigarria badirudi ere, beraiek dira gehien parte hartzen dutenak.



“Gazteenak gure jardueretan parte hartzera animatu nahi ditugu

G/ Taldearen ohiko jardueraz gain, ekitaldi bereziren bat egiteko asmoa duzue?

E/ Hitzaldi-solasaldi bat antolatzeke lanean ari gara. Bertan, aditua den profesional batek pertsona nagusien zahartzeko aktiboari buruzko informazioa emango digu. Gainera, Taldeak antolatutako jardueren artean, belaunaldien arteko martxa bat antolatuko dugu berriro, bai eta Mellorako ohiko igoera ere urte amaieran. Eta, jakina, Mendi Astea ere egingo dugu azaroan, eta, ekitaldi horren barruan, nazioartean erreferentzia gisa hartzen den mendizale bat gonbidatuko dugu.

G/ Lortzen duzue harrobiari eustea eta neska-mutikoak animatzea?

E/ Urteak igaro dira, baina harrobiari eustea lortu dugu. Dena dela, egia da, era berean, parte-hartze maila nabarmen jai-

tsi dela. Hala ere, lehenengo eguneko ilusio bera dugu oraindik. Hori dela eta, txiki zein nagusiak animatu nahi ditugu mendizaletasunaren eta txangozaletasunaren alde lan egin dezaten. Irteerekin, gure osasuna zaindu nahi dugu, eta oso gaitasun garrantzitsua sustatzen dugu: adiskidetasuna.

G/ Egin dezagun autokritika apur bat. Zeintzuk izango lirateke, taldearen beraren iritziak, hobetu beharreko alderdi nagusiak?

E/ Uste dugu funtsezkoa dela gazteenen partaidetza areagotzea, taldeak antolatzen dituen jarduerak guztietan. Gainera, jende gehiago etorri beharko litzateke hitzaldi eta solasaldi guztietara, zuzendaritza batzordeak ahailekin handia egin behar izaten baitu ekintza horiek antolatzeke. Gure ustez, bazkide eta zaleen babesa ezinbestekoa da.

Kultur jardueretarako diru-laguntzak

Muskizko Udalak 90.000 euro banatu ditu, kirol zein kultur elkartei eta jai batzordeei zuzendutako diru-laguntzen kontzeptu gisa. Herriko hogeita hamabi taldek jaso dituzte laguntza hauen onurak.

Herriko kirol elkartei dagokienez, J. D. Somorrostro futbol taldea da partidarik handiena jaso duena, 7.198 euroekin. Eskubaloitza taldeak, 6.907 euroekin, eta Mendiz-Mendi mendizale taldeak, 3.715 euroekin, dute bigarren eta hirugarren tokia, hurrenez hurren, Udalak ekitaldi honetan onartu dituen laguntzen banaketari dagokienez. 3.000 euro inguru eskuratu dituzte Barbadun Pilota Elkartek, Peña Motera Alien klubak eta Muskiz Aretoko Futbola areto-futboleko taldeak.

Diru-laguntza hauek jaso dituzten kultur elkarten artean, Arraintxori ehiza eta



arrantza elkarteak nabarmentzen da, 6.000 euroekin. Beste alde batetik, Emakumeen Elkartek eta Goizale Eskaut Taldeak, bakoitzak bere aldetik, 3.000 euro inguruko laguntza jaso dute. Epigrafe honetan jasotako taldeei zuzendutako azken zenbatekoa 27.858 eurokoa izan da, hau da: korporazioak herriko kultur, auzo eta kirol jarduerak

eta elkarten diru-laguntza kontzeptu gisa onartu duen zenbateko osoaren %30 baino zertxobait gehiago.

Auzoetako jai batzordeen artean 17.558 euro banatu dira. Zenbateko horretatik, ia %60 Muskizko La Rigada eta Pobeña auzoetako jaiak antolatzera bideratzen da.